

Jose Ignazio Ansorena

TXISTULARIA ♦



DANI BLANCO

Azeri dantza

GURE AMA hil berriaren pazientziari zor diot txistulari bihurtu izana. Etxeko eta inguruko guztiei egin zizkigun erregalia ugariren artean —bere bizitza osoa oparia izan baitzen— bizimodu bilakatu zaidanaren karra piztu zidan.

Geroago, txistulari hastapenetan, aitonaren eskutik ttunttunero zahar asko ezagutu nituen. Misteriozko zerbait zerien euren doinuei: errespetua, herri xehearen jakintzari begirunea. Erabakita zeuden irmo plantatzen horren aurka ari zirenen aurrean. Ez da txatxukeria txistulari izatea.

* * *

AZERI DANTZA Hernaniko festen dantza ikurra da. Bertako bi txistulari taldeak eredu dira inguruko danbolinteroentzat. Herriak dituen behar guztiei ongi erantzuten diete, eskuarki musu-truk, eta arduraz zaintzen dute dagokien ondare kulturala.

San Juan egunean bi taldeak elkartzen dira aspaldiko urteetan Kontzertu berezia jotzera eta goiza beteta izaten dute. 2013an guraso batzuei bururatu zitzairen *Azeri dantza* haurrentzako moldean ere egin behar zela eta antolatzeari ekin. Egun horretako goiza aukeratu zuten, ordea, txistularien usadio eta iritziari erreparatu gabe.

*Haur Azeri dantza*ren antolatzaileek, sortutako ika-mikaren ondoren, txistularien dimisioa eskatu dute. Ez dakite zertaz ari diren.

Haur Azeri dantza-ren antolatzaileek, sortutako ika-mikaren ondoren, txistularien dimisioa eskatu dute. Ez dakite zertaz ari diren

* * *

1977. URTEAN Donostiako Aste Nagusiaren lehen egunean txistularien Kontzertu Nagusia egin behar genuen Konstituzio Plazan. Egun eta ordu berean antolatua zuten Askatasunaren Ibilaldiaren amaiera ekitaldia Donostiako Trinitate Plazan.

Horren antolatzaileak, azken momentuan, konturatu ziren Trinitate Plaza ez zela leku egokia, poliziak eraso egitea erabakiz gero, hura tranpa bihur zitekeela. Eta eguerdian etorri zitzaizkigun esanez gure emanaldia atzeratu behar genuela. Ezetz esan genien, euren atzeratzea zela bidezkoena. Berehala hasi zitzaizkigun demandan. Eskerrak Telesforo Monzon agertu eta txistularienganako errespetua

eskatu zien. Hark lortu zuen beren ekitaldia *laburtzea* (hiru ordu laurden), baina gurea atzeratu behar izan zen oholtza *hartu* egin zigutelako. Horraino iritsi zen errespetua.

* * *

TANKERA HORRETAOKAK maiz izan ditugu txistulariok polizia frankistarekin, ia alderdi politiko guztiekin, neurririk gabeko saltzaile eta tabernariekin, elizarekin... Beste txapelketa batean lehiatzen gara, ez azeriegan. ■



DANI BLANCO



Edu
Zelaieta

♦

IDAZLEA

Haurren eta helduen begietan

BARKATUKO DIDAZUE tonu sobera ez udatiarra, baina gero eta asaldatuago nauka aferak. Sei urte bete dira aste honetan aita naizenetik, eta ezinikusia gero eta larriagoa dut: sexismoz jositako marrazki bizidunak nagusi eta gailen dira telebistan. Telebistetan. Nardatua nago haurrentzako pantailan etengabeen berritzen diren genero-estereotipoekin. Esate eskandalagarri baterako, lotsagabe erakusten digute istorio ugaritako protagonista txikiak amek sukaldeko mantala janzen dutela gau eta egun, eta aitak askotan ez dira agertzen ere.

Bien bitartean, kaleko soziologiak mutu dirudi, eta itsu. Erabat normalizatu bide dago eredu tradizional hori 2014an; apenas zirikatzen duen inor ageriko sexismo latzak. Tamalez, aisa aurkituko dituzue arestiko adibideak, aparteko eginahalik egin beharrik gabe. Izan ere, gaur den egunean oraindik, sexistak ez diren haurrentzako marrazki bizidunak aurkitzea da salbuespena. Berdintasun planak gorabehera, indar batean diraite ideia zaharkituek haurren eta helduen begietan. ■

